



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN  
UDALA  
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA  
DE  
ARRANKUDIAGA  
(BIZKAIA)

**2019KO URTARRILAREN 26AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK  
EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

---

**BERTARATUTAKO  
ZINEGOTZIAK**

=====  
**ALKATEA**

Itziar Duoandikoetxea Glez. anderea.

**ALKATE-ORDEA**

Garazi Abrisketa Serrano anderea.

**ZINEGOTZIAK.**

Nerea Zarate Aldama anderea  
Unai Gorostizaga Arbide jauna  
Urtzi Vergara Belaustegigoitia jauna.  
Ane Miren Esparza Montalban anderea.  
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna.

**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA**

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderearen gidaritzapean eta Daniel Maeztu Perez idazkari kontu-hartzaileraren parte hartzearekin, 2019ko urtarrilaren 30ean, 18:41ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

**1. ARRANKUDIAGAKO UDALBATZAK, LEHEN DEIALDITAN, 2018KO  
AZAROAREN 26AN IZANDAKO OHIKO BILERAREN IRAKURKETA  
ETA ONESPENA.**

Udalbatzak gehiengoz onartzen du 2018ko azaroaren 26an izandako ohiko osoko bilkuraren akta.

Bozketa

Urtzi Vergara zinegotzia abstenitzen da, aipatutako osoko bilkurara bertaratu ez zelako.

## 2. HAINBAT GAIEN KONTU EMATEA:

- **Idazkari berriaren izendapena:**

Itziar Duoandikoetxea alkate andereak ongi etorria ematen dio idazkari kontu-hartzaile berriari eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 337/2019 Foru Aginduaren berri ematen du. Foru-Agindu horrek Arrankudiaga-Arakaldo elkarteko Idazkaritza-kontuhartzaitza lanposturako bitarteko funtzionario bezala Daniel Maeztu Perez jauna izendatzen du. Aipatutako agindua, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2019ko urtarrilaren 23an publikatu zelarik.

- **Garapenerako Lankidetzaren arloan adostutako diru-laguntza:**

Garapenerako Lankidetzaren arloan ebatzitako diru-laguntzen berri ematen da. Erabakia 2018ko abenduaren 29an Antolaketa lantaldeak egindako batzarrean erabaki ziren:

**ACTA DE LA COMISION DE ORGANIZACIÓN, “ANTOLAKETA LANTALDE”,  
CELEBRADA EL 29 DE DICIEMBRE DE 2018, A LAS 12 H. DEL MEDIODIA.-**

---

---

**SEÑORES/AS ASISTENTES**

=====

- La Sra. Alcalde D<sup>a</sup> Itziar Duoandikoetxea González, por el Grupo Municipal EH-BILDU.

- La Sra. Concejala D<sup>a</sup> Ane Miren Esparza Montalbán, por el Grupo Municipal EAJ-PNV.

Además, acuden a esta reunión: **D<sup>a</sup> Lourdes Izquierdo Cantero y D<sup>a</sup> Mamen Aldama Pinedo**, como responsables de varios proyectos correspondientes al Grupo Arrankudiaga-Zollo/Nicaragua. Estas dos personas nos hicieron saber, con antelación, que querían acudir a esta reunión para dar la opinión del grupo.

La Sra. Alcalde D<sup>a</sup> Itziar Duoandikoetxea González manifiesta que el Ayuntamiento de Arrankudiaga tiene destinada una Partida Económica de 6.000€ para Ayuda Humanitaria.-

La Alcalde da cuenta de que el Ayuntamiento de Arrankudiaga-Zollo es Socio de la ONG EUSKAL FONDOA y, por lo tanto, el Ayuntamiento, como mínimo, está obligado a destinar el 10% del total de la Ayuda, ascendiendo dicha ayuda a 600 €, comentando que el año pasado fue la ONG que más recibió, 3.000 €.

Por otro lado, da cuenta de las solicitudes presentadas en este Ayuntamiento de Arrankudiaga-Zollo por Orden de Registro de Entrada en este Ayuntamiento:

1. **APROHUNISA**: Solicita la cantidad de 12.000 €.-

Según el anuncio que estuvo expuesto en los tablones, la condición era que el proyecto lo presentara alguna persona del pueblo. Como este proyecto no cumple las condiciones exigidas, y después de escuchar diferentes opiniones, se decide no concederle a esta asociación ayuda alguna.

Después de varios comentarios de cómo repartir los 5.400 € restantes y no teniendo una Ordenanza que nos oriente como realizar un reparto adecuado y cambiar diferentes impresiones se llega a un acuerdo, que es el realizar un reparto proporcional, basándose en la cantidad que aparece en los diferentes proyectos.

2. **ONG HONEK**: Proyecto: CENTRO QUINCHO, ATENCION A NIÑOS Y NIÑAS EN SITUACION DE RIESGO SOCIAL. Este proyecto está presentado por Jon Garaio, siendo la cuantía solicitada de 5.250 €, correspondiéndole 1.500 €.

### 3. **ARRANKUDIAGA-ZOLLO/NIKARAGUA TALDEA**:

Las dos responsables del Grupo Arrankudiaga-Zollo/Nicaragua que presentan 3 proyectos, nos explican sus experiencias en Nicaragua, sus relaciones con las/os campesinas/os y, sobre todo, el compromiso que adquirieron con las personas que gestionan el comedor de El Melonar. Prometieron que mientras el grupo pudiera seguirían ayudando.

Los 3 proyectos presentados, vienen desglosados de la siguiente manera:

1º.- Asentamiento de Hermanos Martinez, asciende a 3.116,56 €, le corresponde 850,00€

2º.- Comunidad Launión-Mutuce, asciende a 2.547,00 €, le corresponde 700,00 €.-

3º.- Comunidad de El Melonar, asciende a 8.580,00 €, le corresponde 2.350,00 €.-

Estando todas las personas asistentes a la Comisión de acuerdo con el reparto de la Ayuda Humanitaria, se decide dar cuenta del presente acuerdo al Pleno del Ayuntamiento en la primera Sesión que se celebre y a la Intervención Municipal, para su conocimiento y efectos oportunos, finalizando la reunión a las 13 horas del día arriba indicado.

#### - **Nagusiak jubilatu eta Pentsionisten elkarteak aurkeztutako mozioa:**

Gai honekin idazkariak proposatzen du, adostasuna egonez gero, instituzio adierazpen bezala onartzea, berez, nahiz eta mozio bezala aurkeztu, ez baita udal eskumen inguruko aldarrikapen bat, baizik eta estatuari zuzendutako aldarrikapenak edo eskaerak. Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ) esaten du bere taldea, testuaren hainbat atalekin ados egonik, beste batzuekin ez dagoela ados. Beraz erabakitzen da, gaia mahai gainean uztea eta hurrengo osoko bilkurara eramatea. Era berean, Urtzi Vergara zinegotziaren (EAJ)

proposamenez, erabakitzen da testu bat adosteko saiakera egitea udal talde politiko bien artean.

### **3. ARRANKUDIAGAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA. 2018-2020. EZTABAIDA ETA ONESPENA.**

Idazkariak azaltzen du zein den udalaren euskararen erabilera normalizatzeko planaren testuingurua.

Era horretan, EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntz eskubideak aitortu eta herri aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezarri zituen.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntz eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea derrigorrezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Horren ondorioz, Euskal Autonomi Erkidegoko **86/1997 Dekretuak**, apirilaren 15ekoak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak adierazten dira aipatu dekretuaren 18. atalean.

Euskara planaren **helburu nagusia** da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko. Hori dela eta, udal batzak onartu behar du euskaren erabilera normalizatzeko plana. Orain arte 2013-2017 epealdirako plana indarrean egon da eta orain, Eusko Jaurlaritzaren oniritzia jaso ondoren 2018-2022 epealdirako plana onartzera ekartzen da.

Arrankudiagako udalaren euskararen erabilera normalizatzeko 2018-2022 epealdirako plana, aho batez onartzen da. Planarekin batera, 2018-2022 epealdirako Arrankudiagako euskara sustatzeko ekintza plana onartzen da.

### **4.- 2018 URTEAN ZEHAR EGINDAKO KREDITU-ALDARAZPENAK, UDAL FINANTZA-IRAUNKORTASUNA ARRISKUAN JARTZEN EZ DUTENAREN, KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA JAKINARAZTEA.**

Idazkari kontu-hartzaileak informatzen du; 2018 urtean, 3 kreditu aldarazpen egin zirela. Horrelako finantziario gehigarriak egiterako orduan kontuan eduki behar da, aurrekontuen egonkortasuna, gastu-araua eta zor publikoko helburua betetzen direla.

Kasu honetan aurrekontuen egonkortasuna betetzen da, ez dago defiziterik udal aurrekontuetan. Zor-publikoko arau ere betetzen da, nahiz eta mailegu bat bizirik eduki gaur egun, diru sarreraren (finantza diru sarrerak kenduta) % 30 baino gutxiagokoa delako maileguaren kopurua.

Azkenik, behin aipatutako arauak bete ondoren, aurrekontuen diru geldikinak finantziario gehigarrietarako erabili ahal izateko 5/2013 Foru Arauak, ekainaren 12koa, Bizkaiko Toki Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa, derrigortzen du gastu araua betetzera, hau da, 2018 urtean diru sarreraren eta gastuen arteko diferentziak, aurreko urteko aurrekontuekin alderatuta, ezin zuela %2,4 ko kopurua gainditu. Aipatutako kreditu aldarazpenak muga hori gaintzen zutenez, beharrezkoa da

kontu-hartzailereren txosten bat, aldarazpen horiek udal finantza-iraunkortasuna arriskuan jarri ez dutela jakinaraziz. Txosten hori, 5/2013 Foru Arauak agintzen du udal osoko bilkurara komunikatu ondoren Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatu behar zaiola. Beraz, Arrankudiagako udal osoko bilkurari aipatutako txostena jakinarazten zaio.

## **5.- ALKATETZAREN DEKRETUAK UDALBATZARI JAKINARAZTEA.**

Zinegotziek ikusgai eduki dituzte alkate dekretuak. Horren ondorioz, Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ), komentatzen du badagoela dekretu bat ez duela adierazten zein den gaia edo interesduna. Era horretan, ikus daiteke abenduaren 4ean sinatutako alkate dekretuak ez duela gaia ezta interesduna aipatzen. Alkate andereak azaltzen du zeren inguruan den dekretua, zehazki, Zollon ezarri nahi den negutegi baten inguruan. Eta aurrerantzean gaia edo interesduna zehaztuko direla.

## **6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Alkatea andereak, Jose Antonio Sainz Nieto jaunari, azken hilabetetan behin behinean idazkari kontu-hartzaile lanetan ibili denari, eskerrak emanez gutun bat bidaltzea proposatzen du. Gainerakoek ondo ikusten dute proposamena.

Urtzi Vergara zinegotziak (EAJ), Arrankudiagako botikinaren inguruan galdetzen du. Alkateak esaten dio Jaurlaritzarekin harremanetan jarri zirela eta Jaurlaritzaren iritziz Arrankudiagan ez direla botikina ezartzeko baldintzak ematen. Edozein kasuan, gai berrartuko duela esaten dio.

Ane Miren Esparza zinegotziak (EAJ), hiru galdera egiten ditu:

- Bilbao Bizkaia ur partzuergoan sartzeko gaia zelan dagoen. Alkateak esaten dio gaia euren eskuetan dagoela eta eurek onartu behar dutela sarrera.
- Garondoko plangintzaren auziaren inguruan. Alkateak esaten dio Epaitegi Gorenak ez duela interesdunen errekurtsioa tramitera onartu beraz, gaia udalaren alde bukatu dela.
- Atxandiko bidearen inguruan. Euriak direla eta bidean hainbat lurjausi egon direla Otxanduritik Atxandira dagoen bidearen pasabidean eta bidea oso egoera txarrean dagoela. Egoera aztertzeke Diputazioko inguru honetako arduradunarekin geratuko dela erantzun zion alkate andereak.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio Ekitaldiari eta bilkura 2019ko urtarrilaren 30ean 19:30ean amaitu da. Akta hau alkatea sinatu du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut: =====

Eta horrela jasota geratu eta Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztzara eta Eusko Jaurlaritzara igorri eta Jendaurrean ezar dadin, hau egiten dut Itziar Duoandikoetxea Gonzalez alkate anderearen aginduz eta oniritziarekin, Arrankudiagan 2018ko azaroaren 26an.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**